

170. FITXA Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko partaidetza-proiektuak garatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak, tokiko organismo autonomoak eta tokiko merkataritza-sozietateak.

Sarbide-esteka: [Toki-esparruan osasuna sustatzeko partaidetza-proiektuak garatzeko laguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2025eko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko partaidetza-proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak](#)

Eremuak: Osasungintza

Zenbatekoa: 250.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/20

Laburpena

Laguntza hauen helburua da **partaidetza-proiektuak** finantzatzea, honako helburu hauek dituztenak:

- Espazio berean bizi direnen bizi-baldintzak hobetzea.
- Osasuna eta ongizatea hobetzeko prozesuetan ekintza indibidualeko eta kolektiboko gaitasunak sustatzea.
- Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak barne hartuta.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezke honako gastu hauek:

- Materialak.
- Profesionalak.
- Publizitatea eta komunikazio-jarduerak.

Gastuetarako aldi hautagarria

2025eko urtarriletik abendura bitartean egindako proiektuak.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren hasierako zenbatekoak ez du muga hauetako bat ere gaindituko:

- a) Eskatutako zenbatekoa.
- b) Diruz lagun daitekeen gastuaren aurrekontu osoaren % 75.
- c) Proiektu bakoitzeko 7.000 euro.
- d) 13.000 euro entitate onuradun bakoitzeko, proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero. Entitate bereko proiektu bat baino gehiago esleipendun suertatuz gero, puntu gehien dituenari emango zaio lehentasuna..

Intereseko beste alderdi batzuk

Eskabide bat aurkeztuko da proiektu bakoitzeko, eta eskabide bat baino gehiago aurkeztu ahal izango da erakunde bakoitzeko.